

No Comment

TXILLARDEGI



**K**ASETA honek ez bestek eman du berria: joan den astean hil da azkeneko *uztarroz* euskalduna. Gainerako «euzko izparringi-ek» ai-

patu ere ez. Jakina!  
Ez dakigu azken-azkenekoa ote den, ala azken-hurrena bakarrik. Orain dela bospasei urte, Koldo Artola-ren eskutik, beste uztarroztar «uskaldun» batekin mintzatzeko aukera izan nuen. 84 urte zituen andere hark guk ikusi genuenean, eta Uztarrozen bizi zen.

Bidankozen uskaldunik bilatzea alferrik da gaur: azkenak eta azken-hurrenak oro hil dira mende honetan barrena. Baina Azkuek tratatu zuen mendigatxa, Bidankoze uskaldunaren lekuko aparta zen oraino 1910 inguruan.

Gares-ko azkeneko uskaldunak, bide beretik, 1936ko gerla-garaian hil ziren; bat-edo-beste 1950ra arte luzatuz. Gaur bilatzea, alfer-lana.

Eta hau guztiz mingarri zaigu *batzuri*, «betikoo». *Besteet* ez. Ez du balio geure burua engatzea.

Azkeneko inkestek erakutsi dutenez, eta uskalk herri handiei dagokienez, *Azkoitiko* uskaldunak dira euskara gehienik erabiltzen dutenak; eta *Mungitok* eraldatzaileak. Zutabe hau irakurtzen dutenek ez dute datu hau ahantzik. Besteek... bego!

Azkenekoa. Euskararen berreskurapenaren alorrean, hizkuntza arras galduta zeukan *Laudio* dator aurrea: %10-etik gora uskaldun. Berri argitaragarria hau ere, gure ustez. Besteen ustez, zer deritzo irakurleak?

Isil nadin, beraz.

Hiztegi solas

PIARRES XARRITTON



**H**IZTEGI solas izan digu berriki Euskaltzaindian, ez baita harriztekoa Akademiaren batean. Maileguzko hitzak genituen solas-gai, hain zuzen,

ohartzten baikara batzuk euskararen batasuna bilatzen dugularik, bestek hesi eta muga berriak ari dizkigutela uskaldunen artean jartzen, hala nola guk Frantses kulturaren heziak izan garenek ulert ez ditazkegun espainolezko hitzak barra-barra sakatzen dizkigutelarik, «errehen», «ingresatu», «erreskatatu», «broma», «eskarmentu» etabar.

Egia da, lehen aspaldi, irentsi ditugula Iparraldean Hegoaldetik etorritako «Alanbre», «aguardientea», «enganatu» eta holako; Hegoaldean, frantsesetik, minik gabe sartu ziren bezala Iparraldeko «greba», «kazeta», eta holako.

Bainan orai komunikabide guzietarik heldu zaigun erauntsiarekin itoztera goaz. 92an Frantziaren eta Espainiaren arteko mugak eroriko direla-ta badute naski hor bi gogoeten bakza politikariek, bainan politika baino lehen kultura jartzen dutenak ere badute oraindik zertan ausartu.

Nik hasteko eskatzen diet berehala Euskal Herri guziko «castellano» zaleei —eta ere «english» zaleei— gure ekologista adiskidek erran izaketen bezala «moratoria» bat.

Arte horretan guk uskaldun zaharrek egin genezake gure hitz altxor zahharren berrikusketa bat: «Askatasuna» adibidez hitzeman zitzaion Euskadiri duela 30 bat urte. «Iraultza» ere bai duela 20 bat urte. «Borrokaren» ordua omen zen duela 10 urte. Eta gaur «Zuhurtza» arki bagazena da.

ABC

Setien

Setiennen neorromantizismo nazionalistak ez du, inolaz ere, erabilgarritasunik Espainian, herri, nazio eta estatu kontzeptuen identitatea duela gizaldi asko, atzerazinezko izaeraz gauzatu bait zen. Eritzi asko egon daitezke eta Setieni ez diogu ukatuko bereak azal ditzan. Benetan larria da, Espainiako Elizako jerarkian kargu handia duen pertsona batek egin deialdia, etiko eta humanista izateko, bati baino gehiagori min egin, askori espantua sortu eta guztiak nahas ditza-kela.


EDITORIALA / 1991-II-15

EL DIARIO VASCO

'Milien' norabiderik gabeko autoritarismoa

ETApm desegiterra bultzatu zuten baldintzetaz ohartuta nago. Bi ETA eta Komando Autonomoen indarkeriazko

HEMEROTEKA



MAXIMO / EL PAIS / 91-II-15

ekintzen aurka 1980. urtean egin ziren mobilizazio garrantzitsuek, kalte ikaragarriak egin zieten gure kontzientziei. Euskal Herriaren nahiaren aurka ezin genezakeen ezer egin, eta gure kontzientziak ere ezer ez egitea agintzen zigen. Biharko gure manifestazioak, otsailak 16, 'milien' eta beraien eremu politikoan kontzientziei kalte handia egitea ere nahi nuke, eta gustatuko litzaideake horrela gertatzea.

JUAN MIGUEL G. MENDIZABAL 'GOIHERRI' / 1991-II-15



Bagdadedo eleanizdunak eta Kremlinoko bahitua

Soviatar armadaren 'saddamofilia' ere ondo sartzen da egungo egoera kontserbatzaile, txeko eta militarrean, Gorbaxoven boterea behin betirako ahultzeko. Eta berak esandakoak, atzerri politika lehen zegoena bezain makala dela eta, agian hain dira egiazkoak,

bere eskuetan gero eta sendoago dagoen segurtasun aparatuari dagokionean inoperantzia dariela.

ALEXANDER ADLER / 1991-II-14

egin

Demokraziaren monopolizatzaileak

Lituaniari bere burujabetasuna lortzeko sortu zaizkion istilu latzak direla eta, Arzalluz, Ardanza...eta antzekoei gauza bat esan nahi nieke bakarrik: 'Zuek Lituaniako nazionalistak erakusten ari diren borondate eta kemen erdia erakutsiko bazenute, gure herriaren askatasuna eta burujabetza lortzeko dagoen borroka askoz aurreratuagoa egongo litzateke'. 1990eko otsailean Euskal Legebiltzarrean egindako Batzarrean erakutsi ziguten beren kemen eza, beren menpetasuna, beren beldur politikoa... Lotsagarria!

RAFA DIEZ USABIAGA / 1991-II-15

ZUZENDARIARI

Nortasun Agiri Nazionala

EGUNKARIA da nire egunkaria. Horregatik egunero crosten dut eta bere akats formalei buruz hitzegitea ez zait batera atsegin. Edukinari buruz gauzak desberdinak dira. Baina, inork ez diezadan esan, arrazoiz osoz gainera, hori nire ardura ere badela, ez naiz orain arte ausartu inolako kritikarik egiten. Baina gauroko irakurri ondoren zerbait esatea ausardia baino gehiago eginkizuna dela iruditzen zait. Diario Vasco-n bertan, poltsan eramatera beharreak gauden edota egokia duen izena jartzeko moduak eta hitzak.

MARIA JOSE GARABIETA (ZARAUTZ)

Ez dute bururik!

Hamasei urtetan Primo de Riveraren diktadurapeko gartzelara sartu hinduten; guldian teniente ibili hintzelako bi heriotz-zigor ezarri ziaten, gartzelan egondakoak ez dik aipatzea merezi.

Bizitza osoan lanean eman duan orduketatik at, erdietsi ahal izan duan astia eta beta Aberriari eman duk. Inor gutik bezala eutsi egin diok, onetan eta gaiztoetan, heure abertzaletasun sakon horri.

Eta jubilazioa delako atsendaldia Aberriaren alde gehixeago egiteko hartu duanean «gutuna» jaso duk.

Erdara hutseko gutuna. ETAK, dirudienez, euskara

garbia ez dik erabiltzen bere «zergak» eskatzerakoan. Eskertzekoa duk, lotsagarria huke bestela uskaldun zahar bati ohostu eta lapurretan egin nahi izana euskara garbiz, halajaina!


Langile abertzale xume bati, bere bizialdiko lan ordaina ohostu nahi izateak ere badik lotsatzekoa. Hori bai, orain hasiko dituk betiko leloak «egin diotenean zerbaitegatik izango zen». Ez diate lotsarik ez ahalgerik!

Gero ETAK ez diala bidali esango diate, bada-etz bada ere ez diate kondenatuko, ordea. Errua ta hobena Azkarragari leporatuko zizkioate ta eskuak garbi. Berrogei urte ta gero hau! Eta gaiztoena dena, zeharo itsuturik eta burutik eginda daudenez ez diate ikusi ez entzun nahi ere.

Nolako Euskadi liteke, bada, horiek eskeiniko liguketena? Ez bederen hik eta abertzale askok ametsetan asmatu izan duzuen, baina ez etsi jaioiko dituk berriak-eta!. Horiek ez diete bururik, baldin balute ez lituzkete uskaldun zintzoen ametsak tiroz hilko.

AMAIA (OKONDO)

PERTSONAIA



BENAIKT

Gabriel Urralburu

Ai Urralburu, ai Urralburu quien te ha visto y quien te ve, garai bateko abade hura Nafar Gobernuko jabe. Sozio listos osatu arren sozialismotik grabu, orain laugarren kongresuakin zaude beldurrian gabe, alderdi hortan txoriburuak gorantz joaten bait dirade.

LONTXO ABURUZA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Geneteara: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZEN ETXEZAHARRETA INAKI URUA

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Goidialua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1/20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxes: 45 59 57 Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxes: 36 54 93

Publizitatea: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxes: 42 93 18 Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxes: 23 38 73 Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxes: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxes: 423 94 60 Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxes: 59 25 75 11